

AZOKAKO LUR AZPIAN KOKATZEN DIRAN 57 APARKALEKU ETA 3 TRASTELEKUEN SALMENTA ENKANTE BIDEZ ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren gaia hauxe da: Toki Entitateetako Ondasun Erregelamendua onartzen dauan ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan ezarritako preskripzioak betetuz gero, Udal Azokako lur azpian Bermeoko Udalak daukazan 57 aparkaleku eta 3 trasteleku, ENKANTE PUBLIKO bidez egingo dana.

Kontratua, baldintza-agiri honetan oinarritzen da. Baldintza-agiri honek kontratu balioa dauka.

Saldu gura diran aparkaleku eta trastelekuak Udal Azokako lur azpiko -1 solairuan.

Aparkaleku batzuk trastelekua daukee eta beste batzuk ez. Trastelekuak egokitzen jaken aparkalekuagaz batera salduko dira.

2.- LIZITAZIO PREZIOA:

Lizitazio Prezioak, honakoak dira:

Partzelen prezioa: 10.017 €.

Trastelekuen prezioa: 7.507,86 €.

Hori dala eta, salmentan ipiniten diran ondasunen prezioak (trastelekuen arabera), honakoak dira:

Partzela bakarrik: 10.017 € partzelako.

Partzela trastelekuagaz: 17.524,86 €.

Hori horrela, ENKANTE PUBLIKOA, prezio horretatik hasita gorantz egingo da, eta eskaintzarik abantailatsuenari eta Bermeoko Udalarentzat etekinik handiena suposatuko dauanari adjudikatuko jako.

Hori horrela, ondasun multzo bakotxean, prezio altuena eskaintzen dauanak lehentasuna eukiko dau multzo horretako ondasuna aukeratzeko orduan. Beraz,

eskaintako prezioen arabera finkatuko da aukeratzeko hurrenkera.

3.- PROZEDURA

Baldintza pleguak eta gainerako dokumentazioa berh@z bulegoan aztertu eta eskuratuko dira, ordutegi honetan: Goizez 8:30etatik 14:30etara arte, astelehenetik barikura, eta 10:00etatik 13:00etara arte, zapatuetan. Arratsaldez 16.30etatik 19:00etara (martitzen eta eguenetan bakarrik). Deialdia egiten dan egunetik lizitazio data egunera arteko epea egongo da dokumentazioa aztertu eta eskuratzeko.

Proposamenak Udalaren Erregistro Orokorrean (berh@z bulegoan) aurkeztuko dira hilabeteko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren iragarkia publikatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, mahaiak, A gutunazala zabalduko dau eta, inolako akats materialik aurkituko baleu, hiru (3) laneguneko epea, ez gehiago, emongo dau, egoki ikusten badau, lizitatuzaileak akatsak zuzendu daizan.

B gutunazalak, epea amaitu eta zapatua ez dan hamabosgarren lanegunean zabalduko dira, eguerdiko 12:00etan, Udal Areto Nagusian.

4.- ADJUDIKAZINO FORMA

Kontratu hau ENKANTE PUBLIKO bidez esleituko da eta, bardinketarik egongo balitz, eskariak aurkezteko daten arabera erabagiko da, hau da, bardinketa kasuan, eskaria arinago erregistratu dauanaren alde egingo da esleipena.

5.- DOKUMENTAZINOA ETA ONARPENA

Eskaintzaileak, gutunazal itxi bi aurkeztuko dauz zeinetan ondorengo agertuko dan: **“Bermeoko Azokako aparkalekuen salmentan parte hartzeko proposamena”** lema; lizitatuzailearen edo horren ordezkorearen izena ere agertuko da.

“A” GUTUNAZALA:

“Dokumentazio Orokorra” azpi-izenburua edukiko dau. Dokumentazio originala erantsi behar da, edo Notarian edo Administrazioan erkaturiko kopien bidez.

“A” gutunazalan ondorengo dokumentuak sartu beharko dira:

-Proposamena sintzen dauanaren NANA.

-Pertsona juridikoa bada, Sozietatearen Konstituzio Eskrituraren kopia baimendua, edo notariako testigantza, edo behar dan moduan legeztatutako fotokopia, eta Administrazioagaz kontratatzeke, proposamena sinatzen dauanaren alde emondako ahalmen nahikodun ahalordea edo testigantza notariala, merkatal Erregistroan inskribaturiko bataren eta bestearen dokumentu bateratu bat.

-Lizitazio egunerako zergarekiko betebeharrak guztiak ordainduta daukanaren Lurraldeko eta Udalaren Ziurtagiriak.

-Enpresako langileen Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta daukanaren Ziurtagiria, baita jagokoa Istripuen Mutuan Altakoarena ere, edo bestela, TC-1 eta TC-2 dokumentuak. Guzti hori pertsona juridikoa dan suposamenduan.

- Kontratatzeko debekurik ez daualaren aitortzea (2 eta 3 ERANSKINAK)

“B” GUTUNAZALA:

Eskaintza ekonomikoa, Plegu honen azkenean erantsitako proposamen ereduaren arabera, zeinetan eskuratu gura dan ondasun mota (partzela bakarrik, partzela trasteleku txikiagaz edota partzela trasteleku handiagaz) ipiniko dan eta ondasun horrengaitik eskaintzen dan kantitate konkretua eta zehaztua ezarriko dan.

Parte hartzaileek ondasun mota bat baino gehiagorako eskaintzak aurkeztu leikez, hau da, partzela bakarrik erosteko, partzela trasteleku txikiagaz erosteko, edota partzela trasteleku handiagaz erosteko. Kasu honetan, ondasun mota bakotxerako zein kopuru eskaintzen dan zehatz agertu beharko da.

Aipatutako dokumentuak ez aurkezteak, edota, aurreko atalean aurreikusitakoa zehatz ez betetzeak, eskaintza ez onartzeko zioa emongo dau, Herri Administrazioako Erregimen Juridikoa eta Administrazio-Jardunbide Arruntaren Legeko 71. artikuluan xedaturikoan izan ezik.

Adjudikaziodunak, 15 eguneko epe barruan jakinarazi beharko dauz sortu daitezkean ezigaitasun eta bateraezintasunak.

Lizitatuak, eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dau, betiere, hau notariala bada eta legalizazio eta legitimazioari jagokonean, Legeak eta Erregelamendu Notarialak ezartzen dauzan baldintzera egokiturik. Administrazioaren dokumentuak badira, originalak, kopiak ala behar dan moduan egiaztatutako fotokopia.

6.- KONTRATAZINO MAHAIA

Kontratazino mahaiak, aurretik, izaera juridikoa daukien dokumentuen balio formala aztertu eta kalifikatuko dauz, kontratua adjudikatu baino lehen.

Ondoren, Kontratazino Mahaiak eskaintza ekonomikoen dokumentazioa irekitzen jardungo da, kontratazino organora jasoz, ekonomikoki abantailatsuena dan prezioa eskaintzen dauan eskaintzailearen aldeko adjudikazino proposamena. Honek ez dau sortzen inolako eskubiderik proposatutakoaren alde Administrazioaren aurrean, Kontratazino organoaren akordioaz adjudikatzen ez dan bitartean.

Enkanteetan adjudikazinoa hogeita hamar eguneko (30) gehiengo epearen barruan egin beharko dira, hartutako eskaintzen irekitze egunetik hasita.

Aurreko paragrafoan seinalaturiko epean adjudikazino akordioa emoten ez bada, parte hartzaileak bere proposamena erretiratzeko eta emondako bermea itzuli edo indargabetzeko eskubidea eukiko dau.

Kontratazio organoaren akordioa proposamenari egokituko jako Kontratazino Legerian aurrikusitako kasuetan izan ezik.

7.- ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

Adjudikazioa egin ondoren, adjudikazioduna, horren jakinarazpena hartu eta ondorengo egunetik hasita, honetara dago behartuta: hilabeteko epean, salerosketa eskritura publikoa sinatzen Bermeoko Notarioaren aurrean.

Adjudikaziodunak horrela nahi izan ezker, eskriturak euskeraz sinatzeko aukera izango dau eta, horrela egin daiten, Bermeoko Udalak beharrezko pausoak emongo dauz. Aukera honek ez deutso inolako kostu gehigarririk suposatuko adjudikaziodunari.

Parte hartzaileari egotzi leikiozan kausak dirala medio, aurreko klausuletan zenbakituriko dokumentuetariko edozein falta, edo osotu barik dagozalako kontratua ezin izango balitz formalizatu, administrazioak, interesatuari audientzia emon eta gero, horren suntsiaraztea akordatu da.

Kontratua suntsiarazten dan kasuan, adjudikazinoa baliogabe geratuko da.

Kausak ez balira enpresariari egoztekoak, Administrazioak luzatu egingo dau Idazki arrazoituaz, adjudikaziodunari epe barria jakinaraziz, zeinek inolaz ere ezin izango dau seinalaturiko epea gainditu, tratatzen dan kausaren ondorioz galduta gertatu daitekeen denbora berbera.

Kontratuaren formalizazioagaz batera, adjudikaziodunak Plegu honeguz bat datorrenaren adostasuna sinatuko dau. Dokumentu hau eta adjudikatutako eskaintzen ezaugarriek, kontratuzko izaera izango dabe.

8.- BERMEAK

Lehiatzaileek 100 euroko behin-behineko bermea jarri behar dabe lehiaketa honetan parte hartzeko. Esleipen proposamena egin eta gero, diru kopuru hori itzuli egingo da. Hala ere, behin-behineko bermea atxiki egingo da, proposamenean agertzen dan parte hartzaileari adjudikatzeko erabakia hartu arte, baita, Kontratazin legediak ezarritakoak eta esleipena egin orduko euren proposamena beste arrazoi barik aldentzen daben parte hartzaileei kendutakoa ere atxiki egingo dira.

9.- ENKANTEAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK

Besterenganatzea goren mugako prezioaz ulertzen da.

Eskuratzaileak uko egiten deutso saneamendu eskubideari, ebikzioa etorriko balitz, ukapen hori arriskuen ezagupenaz egiten da eta ondorioen menpe; beraz, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Patronatua, besterenganatutako ondasunaren erantzukizunaz salbuetsita geratzen da, momentu guztietan eta edozein zirkunstantzietan.

10.- ORDAINKETA FORMA

Adjudikazioaren prezioa Bermeoko Udalari ordainduko jako eskritura publikoa sinatzen dan ekintza berean. Ordainketa transferentzia bidez edo Banketxek edo Aurrezki Kutxak konformaturiko taloiaren bidez.

11.- ERAGINAK ETA IRAUNGITZEA

Kontratua, eragin eta iraungitzeari jagokonean, indarreango Zuzenbide Pribatuko arauetz erregulatua ulertzen da.

12.- BERMEAREN ITZULKETA

Fidantza, behin-betiko adjudikazioa egin ondoren itzuliko jake lizitatzzaileei, adjudikaziodunari izan ezik, honeri jagokon abonua egin dauanaren froga aurkezten

dauan momentuan itzuliko jako.

Kontratuaren interpretazioari buruz sortutako arazo eztabaidatsuak, Kontratazio Organoak erabagiko dauz, eta horren akordioek, administrazio bideari amaiera emongo deusie eta horreen aurka errekurso kontentzioso-administratiboa jarrai ahal izango da, aipatutako Jurisdikzioko Lege erregulatzailan xedatutakoaren arabera, aldeei jagoken beste edozein foruren errenuntzia espresuagaz aurretik esandakoaren kalte barik, Lege aurrean ikusten dan beste edozein errekurso egin daitekeelarik.

1. ERANSKINA

..... jaun/andereak,
.....ko kalem, zenbakian bizi danak,
..... telefono zenbakia eta zenbakidun NANA daukanak, bere
izenean edo/eta Enpresaren ordezkari legez, eta
.....ko kalem, zenbakian helbidea
daukanak, telefono zenbakia, eta IFZ
daukanak, zein, Klausula Administratibo Partikularren Pleguan aurreikusitako forman
kreditatzen dodan, zera adierazten dot:

1.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, ENKANTE PUBLIKOeran deialdia ezagutu ahal izan dodala, **Udal Azokako aparkalekuak** eskuratzeko.

2.- Administrazio Klausula Partikularren Baldintza-agiria aztertu eta ezagutzen dodala.

3.- Halaber, Klausula Administratibo Partikularren Pleguetako lehenengo klausulak aipatzen dauzan erregelamenduzko testu legalak ezagutzen dodazala.

4.- Ados nagoala eta, borondatez, horren esku geratzen naizela eta aurreko 2, 3 eta 5. eta hurrengo ataletan hurrenez hurren aipatzen diran dokumentu guztiak eta erregelamenduzko testu legalak, oso-osorik eta aldaketa barik onartzen dodazala;

5. Honako ondasuna(k) eskuratu gura doda(z)a)la: (bat baino gehiago aukeratu leike)

- Partzela
- Partzela trastelekuagaz.

Aipatutako eskubide eta betebeharrak eskuratzeko honako kopurua(k) ordaintzeko eskaintza egiten dodala (jarri prezioa zenbaki eta hizkiez).

- Partzelagaitik € (letratan:)
- Partzela trastelekuagaz: € (letratan:)

Bermeon, 2015eko(a)ren(e)an

IZENPEA

2. ERANSKINA

..... jaun/andreak,
zenbakidun NANA daukanak, eta helbidea
dauanak:

AITORTZEN DAU

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikulua ezartzen dituen debekuetatik bat bera ere ez dauela.

Eta horrela jasota geratu daiten, Administrazioagaz kontratatzeko lizitatuzaileek aurkeztu behar daben dokumentazioaren eraginetarako Ziurtagiri hau luzantzen da:

.....n 2015eko (a)ren(e)an

IZENPEA:

3. ERANSKINA

..... jaun/andreak,
zenbakidun NANA daukanak, Enpresaren
..... legez eta
bulegoak helbide honetan daukazanak:

AITORTZEN DAU

Ez bera, ez ordezkutzen dauan Merkataritzako Elkartea, ezta Elkartearen Gobernu Organoa osatzen daberen pertsonak ere, ez dagozala debeku kausetan, ezgaitasun edo bateraezintasun egoeran, Administrazioagaz kontratatzeke, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikulua ezartzen dituen debekuetatik bat bera ere ez dauela.

Eta horrela jasota geratu daiten, Administrazioagaz kontratatzeke lizitatuak aurkeztu behar daberen dokumentazioaren eraginetarako Ziurtagiri hau sinatzen da:

.....n 2015eko (a)ren(e)an

IZENPEA

